


Euskal AEko eraikuntza-kostuak % 0,2 garestitu ziren 2015eko urtarrilean, aurreko hilarekin alderatuta

lazko urtarrilarekin konparatuta, eraikuntza-kostuak % 0,7 txikitu dira

Euskal AEko Eraikuntza kostuen Indizea % 0,2 handitu zen 2015eko urtarrilean, aurreko hilarekin alderatuta. Bestalde, hil horretako urtez urteko tasa % 0,7 txikitu zen, EUSTATEk emandako datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Aurreko hilekoaren aldean, ez da aldatu eskulanaren kostua, baina lehengaien kostuak % 0,3 handitu dira.

Azpisektoreka, etxegintzak eta obra zibilak bilakabide ezberdina izan dute lehengaien kostuei dagokienetz aurreko hilarekin alderatuta; izan ere, eraikuntzako lehengaiak % 0,4 handitu dira eta obra zibilekoak, berriz, % 0,3 txikitu. Bi azpisektore horien urte arteko

bilakaerari dagokionez, zeinu berekoak dira. Eraikuntzako lehengaien kostuak % 0,5 jaitsi dira eta obra zibilekoak, aldiz, % 3,6.

Sektoreak kontsumitu dituen lehengaietako batzuen urteko prezioak garestitu egin dira 2014ko urtarrilekoekin alderatuz. Nabarmentzekoak dira *material elektronikoaren* sektorekoak (% 1,8ko hazkundera), *zuraren industriakoak* (% 1,6ko hazkundera) eta *metalurgiarenak* (% 1,2ko hazkundera). Aitzitik, beste sektore batzuetako lehengaien prezioak txikitu egin dira hamabi hilabete hauetan. Aipatzekoak dira *petrolioaren finketaren* sektorekoak (% 28,6 txikiagoak), *industria kiminoarenak* (% 2,5 txikiagoak) eta *kautxu eta plastikoarenak* (% 1,4 txikiagoak).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2015EKO URTARRILA

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	101,8	0,2	-0,7
Eraikinak	101,9	0,3	-0,4
Obra zibila	100,9	-0,3	-2,8
LEHENGAI	100,8	0,3	-1,0
Eraikinak	101,0	0,4	-0,5
Obra zibila	99,5	-0,3	-3,6
LAN-ESKUA	105,4	0,0	0,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)